

## ZEZEN LARRUA (Jarraipena)

(S. *Espiriu-ren* La pell de brau  
*Otsalarrek euskaratua*).

### VII

Gure aitonek begiratu zuten,  
urte asko dela,  
zeru hau  
neguko, altu eta tristean,  
eta bertan irakurri zuten  
babes eta atsedeen ezaugarri bitxia.  
Eta ibiltarietarik zaharrenak  
seinalatu zuen  
bere agintari makila luzearekin,  
besteei erakutsiz,  
eta gero alor hauek adierazi zituen  
esanaz:  
—Benetan hemen pausatuko gara  
Golah-eko  
bide guzien hedaduran.  
Benetan hemen  
ehortziko nauzute.

Eta baitere ehortziak izan ziren,  
banan bana, Sepharad-en,  
berakin iritsi ziren guziak,

eta beren seme eta beren billoba,  
gureganaino.  
Zeren askok bai dakigu  
oraindik sakabanatuak gaudela  
Golah-eko  
haizean eta erromesean.  
Baina ia ez dugu nahi gehiago negarrik  
tenploagatik,  
ezta ere oroitzapenezko sufrimendurik  
gure hiriaz.

Horregatik, noizbait norbait,  
berandu batean, hurbiltzen da  
jarrera zorrotzez  
galdezka:  
«Zergatik gelditzen zerate hemen,  
odolez beteriko  
herri latz eta lehor hontan?  
Hau ez bait da egiazki  
aurkitu ditzakezuten alorrik hoberena  
Golah-eko  
denboraren frogantza  
luzea zehar»,  
guk irripar arinez  
guraso oroitza dakartzagu  
ihardespren soilez diogularik:  
—Gure ametsean, bai.

## VIII

Ez gehiago negarrik tenploaz  
lurreratu zenez gero.  
Mendebaldera espero zaituzte  
itsas-bideak libreki.

Erregeren arkulari, kantak  
ez dira gehiago intonatuko  
hesi altuaren gainetik: izan bitez  
oroitzatik salbatuak.

Begiradak eroaten dute  
hiriko zerua.  
Begietan, arrazoi ilunak  
amets argiak ikasten.

Jaun leinuen  
eskaleak haizez  
milaka urtez sakabanatuak  
iritsi ginen Sepharad-era.

Zenbat maitatzen dugun  
ogi lazdun luberria  
aho zaharrei ematen diena  
beti odol gustua!

## IX

Lehorra ereinaz  
odol soilez  
beterik den lurrean.

Ildoetan arduratsu  
esku nekatuegaitik,  
lehen hegaldia da  
egunsentiko hegaztiena.

Busti Sepharad  
bere ur egarri handian  
ogi gose esekaitza.

## X

Ogia erostean saltzen badizute  
igeltsu tintatua,  
hortzak, marraskatzean,  
puskatuko zaizkitzu.

Zure saminak barre eragingo dio  
irinaren eta  
karearen tokia  
ezagutzen duen gizonari.  
Ahultzen zare, gizentzen  
duzun artean  
faltsukeriaz saltzen  
zituen lapurra.  
Morroia paseatzen da  
zaldiz  
orain oinhutsik  
dabilen  
printzearenean.  
Eskumakilaz neurtzen du  
buru eta bizkar  
galtzen duen ugazabarena,  
beti isil,  
duintasunaren  
azken hondakineraino.  
Jauna, nola jasan zezake?  
Eta bufoiak  
ez daki  
jaisteko ordua denik?

Arrisgukoa da sinestea  
—gorraren iruzur  
erraza— ez dira pilpiratzen  
benetan  
larri-mina, nahaspildua,  
gaixo gizaxoa  
zeini mantak eta arropak  
odolez beterik  
erruduntzat ixuriz  
hobiratu zutenez.  
Entzun zazu nola mintza dizun  
hizotzeko abotsak,  
esperantza katibatua,  
tik-tak ahulez:  
erlojuaren azken bihotzik  
ez da inoiz gelditzen.

## XI

Taupada ahulez dabil denboraren  
bihotza eta barruan izenordeen  
tranpa hertsira gidatuz garamatza  
Gu noizbait gara zu,  
kasik behinerez bera eta beti ni,  
pausarik gabe berresaneratzen didate  
presondegiko lehen hitza.  
Eta igarotzen gara zubi soilez elkargana  
begirada hotz izugarri honen  
begi huts geldi batzutatik,  
lerroz jarriak ezer-ezaren aurrekaldean,  
gauaren azken iturria  
itotzea bukatu den artean  
eta ur tanto bat ere ez zaio jario  
Sepharad-eko ezpain lehorreri.

## XII

Ez al dakizu iturriak urik  
ez emateko eginak direla  
eta etxeak hotz  
osasungarriagoa sentiarazteko,  
eta trenak eta bideak  
merezimendu neurrien euskarri  
arruntasunaren zorionerako?  
Euririk inoiz egin nahi ez duenez,  
jakina ba argirik ez dagoela,  
eta diruz ez duzu erosterik  
ezer behar duzunetik eta iraunkor behar duzunetik,  
sarrera baizik  
jai egunetan footbaillerako  
edo utziezinezko korrida nazionalerako.  
Hala ere, elohim-ak afariketan  
jostatzen diren artean,  
zu, hain humil eta sufritua  
kontsolatzen zara

banan-bana irentsiz  
hitz sendoak,  
entzugarrienak, teinkatuak,  
laudoriozko hitzak  
kasik doharik eskaintzen dizkitzutenak  
egunkarietan.  
O!, eliku salda, pozak  
zartaginean frejituriko letra inprimatuan  
ez olio eta ez su!  
Gero, zeharo aseturik eta bularra  
garbitu duzularik, eguneko ihardunaldia burutzean,  
beti aukerako txuontzi diren  
Sepharad-eko kale leunetan,  
loak hartuko zaitu, Jainkoari eskerrak emanaz  
gogoeta nekezetan, filosofo jator,  
egun bat gutiago falta dela heriotzarako.